Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala
Boletín Oficial de Gipuzkoa

2018ko ekainaren 1a, ostirala — 105 — Viernes, a 1 de junio de 2018



## AZPEITIKO UDALA

*Iragarkia*

Udalbatzak, 2018ko maiatzaren 15ean eginiko osoko bilkuran, Hiri Antolamenduaren Plan Orokorreko (HAPO) «Arana Ingurunea» HEN4 esparruko Esklabak-Iturzulo 4.3 azpieremuan 1. fasean eraikitzekoak diren araubide orokorreko babes ofizialeko 29 etxebizitza eta horien eranskinak esleitzeko oinarriak onartu ditu.

Behin betiko onartutako azpieremuaren birpartzelazio-proiektuaren arabera, hortik sortutako 2.2 partzelan kokatuko dira eraikitzekoak diren etxebizitzak, 5. eta 6. atarietan. Partzela hori, aldi berean, bat dator azpieremuaren Plan Bereziko a.20.4.3.2 partzelarekin.

Horrenbestez, onartutako oinarriak eman dira argitara.

Aipatutako oinarriak onartzeko erabakien aurka, helegite hauek aurkeztu ahal izango dira:

— Administrazioarekiko auzi errekurtsoa Administrazioarekiko Auzietako Donostiako epaitegian, bi hilabeteko epean, iragarki hau argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

— Berraztertzeko errekurtsoa (aukerakoa) udaletxean, lehen aipatutako errekurtsoa jarri aurretik, hilabete bateko epean, iragarki hau argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

*«Arana Ingurunea» HEN4 esparruko Esklabak-Iturzulo 4.3 H.I.U azpieremuan, 1. Fasean eraikitzekoak diren araubide orokorreko babes ofizialeko 29 etxebizitza eta horien eranskinak esleitzeko oinarriak. Etxebizitza horiek Plan Bereziko 20.4.3.2 partzelan, 5. eta 6. atarietan, kokatuko dira (aldi berean, birpartzelazio-proiektuan sortutako 2.2 partzelarekin bat dator aipatutakoa).*

1. *Xedea.*

Oinarri hauen xedea da HAPOren «Arana Ingurunea» HEN4 esparruan, Esklabak-Iturzulo 4.3 azpieremuan 1. fasean eraikitzekoak diren araubide orokorreko babes ofizialeko 29 etxebizitza, haien garajeak eta trastelekuak jabetza-eskubidean esleitzeko baldintzak ezartzea. Etxebizitza horiek Plan Bereziko 20.4.3.2 partzelan, 5. eta 6. atarietan, kokatuko dira (aldi berean, birpartzelazio-proiektuan sortutako 2.2 partzelarekin bat dator aipatutakoa).

Azpeitia Berritzen, S.A. (Azpeitiko Udaleko sozietate publikoa) da sustapen horren sustatzailea.

Babes ofizialaren arloan Eusko Jaurlaritzak indarrean duen araudiaren arabera garatu eta finkatu dira oinarri hauek. Oinarri hauetan jasotzen ez den guztian, aipatutako araudi horretan xedatutakoa aplikatuko da.

Etxebizitzek eta haiei lotutako garaje eta trastelekuek araubide orokorreko babes ofizialeko etxebizitzen kalifikazio iraunkorra izango dute. Horren ondorioz, behin betiko lotuta egongo dira bai EAEko arautegian ezarritako gehieneko transmisio-prezioari, bai eta Udalak edo Administrazio ekintzaileak lehentasunez erosteko eta atzera eskuratzeko eskubidea baliatzeko aukerari ere.

## AYUNTAMIENTO DE AZPEITIA

*Anuncio*

El Ayuntamiento Pleno en sesión celebrada el día 15 de mayo de 2018 ha procedido a la aprobación de las bases para la adjudicación de 29 viviendas de protección oficial de régimen general y sus anejos a construir en el subámbito 4.3 Esclavas-Iturzulo del área urbanística AU 4 «Arana Ingurunea» del Plan General de Ordenación Urbana –1.º fase–.

Según el Proyecto de Reparcelación del subámbito aprobado con carácter definitivo, las viviendas a construir se situan en la parcela resultante 2.2, portales 5 y 6. Esta parcela corresponde a su vez a la parcela a.20.4.3.2 del Plan Especial del subámbito.

En consecuencia se procede a su publicación.

Contra los acuerdos de aprobación de las citadas bases, se podrán interponer los siguientes recursos:

— Recurso Contencioso Administrativo ante el Juzgado de lo Contencioso Administrativo de San Sebastián en el plazo de dos meses contados desde el día siguiente a la publicación del presente anuncio.

— Recurso de Reposición ante este Ayuntamiento (con carácter potestativo), previo al Recurso señalado en el apartado anterior, en el plazo de un mes contado desde el día siguiente a la publicación del presente anuncio.

*Bases para la adjudicación de 29 viviendas de protección oficial de régimen general y sus anejos, a construir en el subámbito 4.3 Esclavas-Iturzulo del área AU 4 «Arana Ingurunea» –fase 1.ª– portales 5 y 6 de la parcela a.20.4.3.2 del Plan Especial que corresponde a la parcela resultante 2.2 del Proyecto de Reparcelación.*

1. *Objeto.*

Estas bases tienen por objeto establecer las condiciones para la adjudicación en derecho de propiedad de 29 viviendas de protección oficial con sus garajes y trasteros de régimen general, a construir en el área AU4 «Arana Ingurunea», subámbito 4.3 Esclavas-Iturzulo del PGOU –fase 1.ª– portales 5 y 6 de la parcela a.20.4.3.2 del Plan Especial que corresponde a la parcela resultante 2.2 del Proyecto de Reparcelación.

En esta promoción actuará como promotor la entidad Azpeitia Berritzen, S.A. (sociedad pública del Ayuntamiento de Azpeitia).

Estas bases desarrollan y tienen como fundamento la normativa vigente a la aprobación de esta convocatoria en materia de protección oficial del Gobierno Vasco. En todo lo no previsto en estas bases, será de aplicación la citada normativa.

Las viviendas y los garajes y trasteros a ellas vinculados, tendrán la calificación permanente de vivienda de protección oficial de régimen general. Consecuentemente, estarán sujetas de forma permanente tanto al precio máximo de transmisión como al ejercicio del derecho de tanteo y retracto establecido en la normativa autonómica.

EK\CV GAO-I-2018-03778

29 etxebizitza horietatik bi mugikortasun murriztua duten pertsonentzat egokiturik daude.

Etxebizitzen eta haiei loturiko garaje eta trastelekuen ezaugarriak eta prezioak Babes Ofizialeko Etxebizitzen behin-behineko kalifikazioan finkatutakoak izango dira.

Etxebizitzak esleitzeko prozedura honek indarrean den araudiaren arabera exijitzekoak diren publizitate-, lehia publiko- eta gardentasun-printzipioak bermatzen ditu. Esleipena zozketa bidez egingo da.

*2. Zozketan parte hartzeko baldintzak.*

a) Baldintza pertsonalak:

1. Adin nagusikoa edo adingabeko emantzipatua izatea.

2. Etxebide-Etxebizitzaren Euskal Zerbitzu Publikoan etxebizitza eskatzaileen erregistroan behar den moduan izena emanda egotea, Azpeitian erosketa-erregimenean babes ofizialeko etxebizitza eskatzaile gisa, 2018ko urtarrilaren 1ean.

b) Erroldatze-baldintzak:

— Azpeitiko udalerrian erroldatuta egotea, 2018ko urriaren 1aren aurreko azken 15 urteetan gutxienez 6 urtez.

— Edo Azpeitiko udalerrian erroldatuta egotea 2018ko urriaren 1aren aurreko gutxienez 2 urteetan eta etenik gabe.

Eskaeran titular bat baino gehiago badago, nahikoa da horietako batek erroldatzeari dagokion baldintza betetzea.

c) Etxebizitza-premiaren baldintzak:

Etxebizitza-premiari dagokionez, araubide orokorreko babes ofizialeko etxebizitzak jabetzan eskuratzeko indarrean den legedian ezarritako baldintzak bete beharko dira, eta zehazki martxoaren 4ko 39/2008 Dekretuan (2008ko martxoaren 28ko *Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian* argitaratua) eta Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuaren 2012ko urriaren 15eko Aginduan (2012ko urriaren 31ko *Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian* argitaratua) ezarritakoak.

d) Baldintza ekonomikoak:

Araubide orokorreko babes ofizialeko etxebizitzak jabetzan eskuratzeko indarrean den legedian ezarritako baldintza ekonomikoak bete beharko dira, eta zehazki Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuaren 2011ko irailaren 14ko Aginduan (2011ko irailaren 30eko *Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian* argitaratua) ezarritakoak. Martxoaren 4ko 39/2008 Dekretuaren 16. eta 19. artikuluak aldatzen ditu agindu horrek.

Zehazki, urteko diru-sarrera haztatuak egiaztatu beharko dira, eta diru-sarrera horiek gehienez ere 39.000,00 €-koak izango dira, eta gutxienez 9.000.00 €-koak.

Mugikortasun mugatu iraunkorra duten pertsonen kasuan edota adimen-desgaitasuna duten pertsonen kasuan, nahikoa izango da 3.000,00 euroko gutxieneko diru-sarrerak egiaztatzea.

Diru-sarreren zenbatekoa egiaztatzeko, 2017ko ekitaldiko Pertsona fisikoen Errentaren gaineko Zergan aitortutakoak hartuko dira kontuan.

*3. Esleitzeko modua.*

Etxebizitzak notario aurreko zozketa publiko bidez esleituko dira. Zozketa hori horretarako izendatutako lekuan egingo da, komunikabideen bidez jakitera emango den datan, ekitaldiaren ahalik eta hedapen handiena ziurtatzeko.

*4. Zozketan parte hartuko duten pertsonak.*

Etxebidek 2018ko urriaren 1eko datarekin Azpeitian etxebizitza erosteko eskatzaileen erregistroan izena emanda dauden pertsonen zerrenda bidaltzen duenean, zozketan parte hartzeko eskabidea aurkezteko epea zabalduko da.

De las 29 viviendas, dos están adaptadas para personas con movilidad reducida.

Las características y precios de las viviendas, así como de los trasteros y garajes vinculados a estas, serán las que se fijen en la calificación provisional de las VPO.

El presente procedimiento de adjudicación de viviendas garantiza los principios de publicidad, concurrencia pública y transparencia exigibles por la normativa en vigor. La adjudicación será por sorteo.

*2. Condiciones para participar en el sorteo.*

a) Condiciones personales:

1. Ser mayor de edad o menor emancipado/a.

2. Estar convenientemente inscritos en el Registro de Solicitantes de Vivienda del Servicio Público de Vivienda del País Vasco –Etxebide– como demandantes de Vivienda de Protección Oficial en régimen de compra en Azpeitia, al 1 de octubre de 2018.

b) Condiciones de empadronamiento:

— Estar empadronado en el municipio de Azpeitia, como mínimo 6 años en los últimos 15 años inmediatamente anteriores al 1 de enero de 2018.

— O, estar empadronado en el municipio de Azpeitia, como mínimo e ininterrumpidamente durante los 2 años anteriores al 1 de enero de 2018.

En el caso de solicitudes en que conste más de un titular, será suficiente con que alguno de ellos cumpla el requisito de empadronamiento.

c) Condiciones de necesidad de vivienda:

Cumplir con los requisitos de necesidad de vivienda establecidos en la normativa vigente para el acceso a la propiedad de viviendas de protección oficial de régimen general, en particular en el Decreto 39/2008 de 4 de marzo (publicado en el *Boletín Oficial del País Vasco* de fecha 28 de marzo de 2008) y en la Orden de 15 de octubre de 2012, del Consejero de Vivienda, Obras Públicas y Transportes, (publicado en el *Boletín Oficial del País Vasco* de fecha 31 octubre de 2012).

d) Condiciones económicas:

Cumplir con los requisitos económicos establecidos en la normativa vigente para el acceso a la propiedad de viviendas de protección oficial de régimen general, en particular los establecidos en la Orden de 14 de septiembre de 2011 del Consejero de Vivienda, Obras Públicas y Transportes (publicado en el *Boletín Oficial del País Vasco* de fecha 30 de septiembre de 2011) que modifica los artículos 16 y 19 del Decreto 39/2008 de 4 de marzo.

En concreto los ingresos máximos ponderados para la compra de viviendas de protección oficial de régimen general no podrán ser superiores a 39.000,00 € y los ingresos mínimos no podrán ser inferiores a 9.000,00 €.

En el caso de discapacitados con movilidad reducida de carácter permanente o de discapacitados psíquicos declarados como tales, bastará con acreditar ingresos mínimos de 3.000,00 €.

Para el cómputo de los ingresos se tendrán en cuenta los declarados en el Impuesto sobre la Renta de las Persona Físicas del ejercicio 2017.

*3. Forma de adjudicación.*

La adjudicación de las viviendas se realizará mediante sorteo público notarial en el lugar que para ello se designe, en fecha que se dará a conocer en los medios de comunicación que aseguren la mayor difusión del acto.

*4. Participantes en el sorteo.*

Una vez remitida por Etxebide la lista de inscritos/as en el Registro de Solicitantes de Vivienda a fecha 1 de octubre de 2018, como demandantes de vivienda en compra en Azpeitia, se abrirá el plazo para solicitar la participación en el sorteo.

EK\CV GAO-I-2018-03778

Izena emanda dauden pertsonen zerrenda Azpeitiko Udaleko web-orrian (www.azpeitia.eus) argitaratuko da, eta esleipen-prozeduran parte hartzea eskatzeko epea zabalduko da.

Deialdian onartuak izateko, zerrenda horretako pertsonek 2018ko abenduaren 3a baino lehen aurkeztu beharko dute esleipen-prozeduran parte hartzeko eskaera Azpeitiko Udaleko erregistro orokorrean. Eskabidea ezarritako epean aurkeztu ez duten pertsonek ezingo dute deialdian parte hartu, eta ez dira onartuak izango.

Eskabidea egiteko, zozketan parte hartzeko eredua hartuko da kontuan, oinarri hauen I. eranskin gisa jasotakoa; hori ere Udalaren web-orrian (www.azpeitia.eus) eman da argitara.

*5. Behin-behineko zerrendak.*

Baldintzak betetzen direla egiaztatu ondoren, zerrendak egingo dira.

Berrikusketa horren arabera, onartutako eta baztertutakoen behin-behineko zerrendak egingo dira, kupotan banatuta (orokorra eta etxebizitza egokituak), eta, kasuan kasu, baztertzeko arrazoiak zein izan diren adierazita. Onartutakoen zerrendak honela egingo dira:

— Mugikortasun murriztua duten pertsonentzat gordetako etxebizitzak eskuratzeko aukera dutenak.

— Gainerako etxebizitzak eskuratzeko aukera dutenak.

Bi kupoetan, zerrendetan bertan zehaztuko da hiru kategoria hauetatik zeinetan dauden zerrendako pertsonak:

a) Pertsona bakar batek osatutako bizikidetza-unitatea: zenbaki bat.

b) Bi pertsonak osatutako bizikidetza-unitatea: bi zenbaki.

c) Hiru pertsonak edo gehiagok osatutako bizikidetza-unitatea: hiru zenbaki.

Zerrenda horiek Azpeitiko udaletxeko iragarki-taulan eta web-orrian (www.azpeitia.eus) erakutsiko dira, hamar egun baliodunetan, aurrez Gipuzkoako Lurralde Historikoan tirada handiena duen egunkarian iragarkia argitaratu ondoren.

Hamar eguneko epe horretan, baztertutako eskatzaileek erreklamazioa jarri ahal izango dute, uste badute erabaki hori ez dela arrazoizkoa edo justifikatua. Erreklamazioa idatziz aurkeztu beharko dute Azpeitiko Udalaren sarrera erregistoan, adierazitako arrazoiak frogatzeko oinarritzat jotzen dituzten agiriekin batera.

*6. Behin betiko zerrendak eta etxebizitzen zerrenda.*

Erreklamazioak ebatzita, onartuen eta baztertuen behin betiko zerrendak erakutsiko dira Azpeitiko udaletxeko iragarki-taulan eta web-orrian (www.azpeitia.eus).

Behin betiko zerrenda horiek onartzeko erabakiaren aurka berraztertze-errekurtsoa jarri ahal izango dute hautagaiek, edo horrela badagokio, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa.

Datu hauek adieraziko dira behin betiko zerrendetan:

— Etxebideko espedientea eta eskabidearen buruan agertzen denaren izen-abizenak.

— Zer kupotan parte hartzen duen.

— Erakundeak partaide bakoitzari zozketarako ausaz esleitutako zenbakia edo zenbakiak.

Eskatzaileak behin betiko zerrendetan onartu izanak berez ez du egiaztatzen partaideek oinarri hauetan ezarritako baldintzak betetzen dituztenik. Etxebizitzak behin betiko esleitu aurretik egiaztatuko dira baldintzak horiek.

La lista de inscritos/as se publicará en la página web del Ayuntamiento de Azpeitia www.azpeitia y se abrirá el plazo para solicitar la participación en el procedimiento de adjudicación.

Para ser admitidos en la convocatoria, las personas que integrán esta lista deberán presentar en el Registro general del Ayuntamiento de Azpeitia antes del día 3 de diciembre de 2018 la solicitud de participación en el procedimiento de adjudicación. No podrán participar en la convocatoría ni serán admitidos las personas que no hayan presentado esta solicitud en el plazo establecido.

A tal efecto se tendrá en cuenta el modelo de participación en el sorteo que se recoge como anexo 1 de las presentes bases, publicado en la página web del Ayuntamiento www. azpeitia.eus.

*5. Listas provisionales.*

Una vez realizadas las comprobaciones oportunas sobre el cumplimiento de requisitos, se elaborarán las listas.

De acuerdo con dicha revisión, se elaborarán las listas provisionales de las personas solicitantes admitidas y excluidas por cupos (general y de movilidad reducida), con mención en su caso del motivo de la exclusión. Las listas de admitidos se confeccionarán de la siguiente forma:

— Para quienes opten a las viviendas reservadas a personas de movilidad reducida.

— Para quienes opten al resto de viviendas.

En ambos cupos, los listados de participantes determinarán en cuál de las tres categorías siguientes se encuentran los integrantes del listado:

a) Unidad convivencial formada por una persona: un número.

b) Unidad convivencial formada por dos personas: dos números.

c) Unidad convivencial formada por tres o más personas: tres números.

Dichas listas se expondrán en el tablón de anuncios del Ayuntamiento de Azpeitia y en su página web (www.azpeitia.eus) durante diez días hábiles, previa publicación de un anuncio en el diario de mayor tirada en el Territorio Histórico de Gipuzkoa.

En el mismo plazo de diez días las personas solicitantes excluidas podrán interponer una reclamación, en caso de que juzguen que tal exclusión es injustificada. Dicha reclamación deberá presentarse por escrito en el Registro municipal del Ayuntamiento de Azpeitia, acompañada de cuantos documentos probatorios se entiendan necesarios para apoyar las razones que se expongan.

*6. Listas definitivas y relación de viviendas.*

Una vez resueltas las reclamaciones, se expondrán los listados definitivos de admitidos/as y excluidos/as en el tablón de anuncios y en la página web del Ayuntamiento de Azpeitia (www.azpeitia.eus).

Contra el acuerdo aprobatorio de las listas definitivas se podrá interponer recurso de reposición potestativo o, en su caso, recurso contencioso- administrativo.

Las listas definitivas contendrán los siguientes datos:

— Expediente de Etxebide y nombre y apellidos de quien encabece la solicitud.

— Cupo por el que se participa.

— Número o números que para el sorteo asigne la entidad, de modo aleatorio a cada participante.

La inclusión como admitidos en las listas definitivas de participantes no presupone el cumplimiento de las condiciones y requisitos exigidos, que se comprobarán con anterioridad a la adjudicación definitiva de las viviendas.

EK\CV GAO-I-2018-03778

7. *Zozketa.*

Partaideen behin betiko zerrendak argitaratzearekin batera zozketa zer egunetan, ordutan eta tokitan izango den adieraziko da.

Notarioaren aurrean egingo da zozketa hori, horretarako izendatutako lekuan. Zozketara bertaratu nahi duten guztientzat libre izango da sarrera.

Zozketa bateratua egingo da etxebizitza guztientzat, baina kupoak bereizita zozkatuko dira.

Lehendabizi, mugikortasun murriztu iraunkorra duten pertsonen kupoa zozkatuko da, eta ondoren, kupo orokorra.

Kupo bakoitzeko zozketan, esleipendun izango balitz bikote bat (seme-alabekin edo gabe), guraso bakarreko familiaren bat edo horren pareko bizikidetza-unitatea, zozketarako eman zaizkien gainontzeko zenbakiak zozketatik kanpo geldituko dira, eta beraz, ezingo zaie bi edo hiru etxebizitza egokitu, kasuak kasu.

8. *Esleipendunak.*

Zozketaren emaitzaren arabera, etxebizitza (garaje eta trastelekuekin) egokitu zaien pertsonei deituko zaie, hautatuak izan diren hurrenkeran aukeraketa egin dezaten.

Zozketako hurrenkerari jarraituz, itxaron-zerrendak osatuko dira ondoren adierazitako kasuetan gerta daitezkeen hutsuneak betetzeko. Kasu hauetan guztietan, hutsunea gertatu den kupoaren arabera beteko dira esleipendunik gabe geratu diren etxebizitzak.

Hala ere, erakunde honek babes ofizialeko salerosketarako etxebizitzen beste zozketa bat egin arte izango da indarrean itxaron-zerrenda hori. Hala, etorkizuneko zozketa horretatik sortzen den itxaron-zerrendak ordezkatuko du deialdi honetakoa.

Behin-behineko esleipendunen zerrendak, baita itxaron-zerrenda ere, Azpeitiko Udalaren iragarki-taulan eta web-orrian (www.azpeitia.eus) argitaratuko dira.

Zozketan saridun izan direnei zuzenean jakinaraziko zaie behin-behineko esleipena, eta hala balegokie, derrigorrez bete beharrekoak diren eta aurrez egiaztatu ez dituzten baldintzei buruzko dokumentuak aurkezteko eskatuko zaie. Hilabeteko epea izango dute horretarako. Baldintza hori betetzen ez duten pertsonek etxebizitzari uko egiten diotela ulertuko da, eta ondorioz, dagokion itxaron-zerrendako hurrengo pertsonari emango zaio aukera.

Behin-behineko esleipendunak behin betiko bihurtuko dira beraien datu pertsonalak eta aurkeztutako dokumentazioa zuzenak direla eta eskatutako baldintzak betetzen dituztela egiaztatutakoan. Horrelakorik gertatuko ez balitz; hau da, esleipendunak oinarrietan eta indarrean dagoen araudian eskatutako baldintzak betetzen ez dituela egiaztatuko balitz, pertsona edo bizikidetza-unitate horrek leku huts bat utziko du, eta itxaron-zerrendako hurrenkera jarraituz beteko da.

9. *Uko egitea.*

Pertsona edo bizikidetza-unitate esleipendunek aurkeztutako uko egiteak Etxebizitza Saileko Lurralde Ordezkaritzari jakinaraziko zaizkio, eta Etxebide-EAEko Etxebizitzaren Zerbitzu Publikoko Eskatzaileen Erregistroaren araudiak kasu hauetarako ezartzen duen ondorioa izango du: erregistrotik baja ematea eta urtebeteko zigorra.

10. *Lehentasunez erostea eta atzera eskuratzea.*

Sustapeneko etxebizitzek babestutako etxebizitzen kalifikazio iraunkorra izango dute. Horren ondorioz, etxebizitza hauek eskualdatzeko gehieneko prezio bat izango da, modu iraunkorrean, eta lehentasunez erosteko eta atzera eskuratzeko esku-

7. *El sorteo.*

A la vez que se publiquen los listados de participantes definitivos, se indicará día, hora y lugar de la celebración del sorteo.

Éste se llevará a efecto ante Notario en el lugar que se designe. El acceso será libre para cualquier persona que quiera presenciarlo.

Se efectuará un sorteo conjunto para todas las viviendas, si bien se sortearán los cupos por separado.

Inicialmente se sorteará el cupo de personas con movilidad reducida permanente, para a continuación pasar al cupo general.

En el sorteo de cada cupo, si resulta adjudicataria una pareja con o sin hijos, o familias monoparentales o la unidad convivencial asimilada a la misma, se entenderán excluidos del sorteo el resto de números que se les hubieren adjudicado para el sorteo, de forma que no puedan resultar doblemente o triplemente agraciados, según los casos.

8. *Adjudicatarios/as.*

Conforme al resultado del sorteo se citará a las personas agraciadas con las viviendas, con sus garajes y trasteros, a fin de que efectúen la elección por orden de adquisición de condición de seleccionado.

Siguiendo el orden establecido en el sorteo se confeccionarán los listados de espera para ocupar las vacantes que en los casos que se señalan a continuación se produzcan. En todos esos supuestos se cubrirán las viviendas que hayan quedado sin adjudicatario/a en función del cupo en el que se haya producido la vacante.

No obstante, dicho listado de espera regirá hasta que esta entidad realice un nuevo sorteo en compraventa de viviendas de protección oficial, de modo que la lista de espera resultante de ese futuro sorteo sustituirá a la de la presente convocatoria.

Las listas de adjudicatarios/as provisionales, incluida la lista de espera, se publicarán en el tablón de anuncios y en la página web del Ayuntamiento de Azpeitia (www.azpeitia.eus).

La adjudicación provisional será notificada también personalmente a las personas agraciadas, quienes serán requeridas en su caso para que en el plazo de un mes procedan a presentar la documentación relativa a los requisitos de obligado cumplimiento que no hubieran acreditado previamente. Se tendrá por desistidas a todas aquellas personas que no cumplieran el requerimiento citado, circunstancia que dará lugar a que se dé oportunidad a las siguientes personas que figuren en el listado de espera que corresponda.

Los adjudicatarios/as provisionales pasarán a ser definitivos/as una vez que se compruebe que sus datos personales y la documentación que hayan aportado es correcta y se ajusta a las condiciones requeridas. Si no fuera el caso, es decir, si se comprobara que quien haya resultado adjudicatario/a no cumple los requisitos y condiciones exigidas en estas bases y en la normativa vigente en la materia, dicha persona o unidad convivencial dejará una plaza vacante que quedará cubierta igualmente siguiendo el orden de los listados de espera.

9. *Renuncia.*

Las renuncias presentadas por personas o unidades convivenciales adjudicatarias, serán comunicadas a la Delegación Territorial de Vivienda y tendrá las consecuencias que la Normativa Reguladora del Registro de Solicitantes de Vivienda del Servicio Público de Vivienda del Pais Vasco-Etxebide establece para estos casos (baja del registro y penalización de un año).

10. *Tanteo y retracto.*

Las viviendas objeto de la promoción tendrán la calificación permanente de viviendas protegidas. Consecuentemente, estarán sujetas de forma permanente no solo al precio máximo de transmisión, como al ejercicio de los derechos de tanteo y

bidea ere izango da etxebizitza hauen gainean, lehenik eta behin Azpeitiko Udalaren alde eta, modu subsidiarioan, EAEko Administrazio Orokorraren alde.

Indarrean den legedian ezarritako moduan gauzatuko da lehentasunez erosteko eta atzera eskuratzeko eskubidea.

*11. Etxebizitzetan bizitzeko betebeharra eta bete gabeko etxebizitzen jabetza kentzea.*

Esleitutako etxebizitzak titularren ohiko bizilekua izango dira ezinbestean.

*12. Jurisdikzio eskuduna.*

Oinarri hauetan jatorria duten auziak eta kontuak erabakitzeko jurisdikzio eskuduna Administrazioarekiko auziena izango da.

Oinarri hauen aurka berraztertze-errekurtsoa jarri ahal izango da hilabeteko epean, Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hurrengo egunetik, edo zuzenean administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren aurrean, beti ere Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legean aurreikusitako modu eta epeetan.

*13. Datuen babesa.*

Izaera Pertsonaleko Datuen Babesari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa betez, jakitera ematen da aurkeztutako datuak eta lortzeko baimentzen direnak Udalaren titularitzapeko fitxategietan sartuko direla beren tratamendurako, oinarri hauetan ezarritako xedearekin. Era berean, jakitera ematen da parte hartzeko eskabidea aurkeztearekin interesdunek baimena ematen diotela Azpeitiko Udalari honako datu hauek udaletxeko iragarki-taulan eta Udalaren web-orrian argitaratzeko: eskatzaileak identifikatzeko datuak (NAN, izen-abizenak), bizikidetza-unitatearen osaerari buruzkoak, zer zerrenda eta kupotan parte hartzen duten eta, horrela badagokio, baztertzeko arrazoia zein izan den.

*14. Araudi osagarria.*

Oinarri hauetan aurreikusi gabeko kasuetan, araudi hauetan ezarritakoa aplikatuko da:

— Martxoaren 4ko 39/2008 Dekretua, babes publikoko etxebizitzen araubide juridikoari eta etxebizitzaren eta lurzoruaren inguruko finantza-neurriei buruzkoa.

— 2010eko azaroaren 3ko Agindua, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuarena, babes ofizialeko etxebizitzen gehieneko prezioak zehazteari buruzkoa.

— 2011ko irailaren 14ko Agindua, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuarena, babes ofizialeko etxebizitzak eskuratzeko eskatu beharreko urteko diru-sarrera haztatuen mugak aldatzekoa.

— 2012ko urriaren 15eko Agindua, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuarena, etxebizitza-eskatzaileen erregistroari eta babes ofizialeko etxebizitzak nahiz araubide autonomikoko zuzkidura-bizitokiak esleitzeko prozedurei buruzkoa.

— 2012ko abenduaren 12ko Agindua, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuarena, honako agindu honetako akatsak zuzentzeko dena: 2012ko urriaren 15eko Agindua, Etxebizitza-eskatzaileen erregistroari eta babes ofizialeko etxebizitzak nahiz araubide autonomikoko zuzkidura-bizitokiak esleitzeko prozedurei buruzkoa.

— Ekainaren 18ko 3/2015 Legea, Etxebizitzari buruzkoa. (*Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria* 119. zka., 2015-06-26koa).

Azpeitia, 2018ko maiatzaren 16a.—Eneko Etxeberria Bereziartua, alkatea. (3778)

retracto a favor, en primer lugar del Ayuntamiento de Azpeitia, y subsidiariamente a favor de la Administración General de la Comunidad Autónoma.

El derecho de tanteo y retracto se efectuará en la forma establecida en la normativa vigente.

*11. Obligación de residencia y expropiacion de viviendas no ocupadas.*

Las viviendas adjudicadas deberán constituir el domicilio habitual permanente de sus titulares.

*12. Jurisdicción competente.*

Para dilucidar todas aquellas cuestiones o contenciosos cuyo origen se encuentre en estas Bases, la Jurisdicción competente será la Contencioso-Administrativa.

Contra estas bases se podrán interponer recurso de reposición en el plazo de un mes desde el día siguiente a su publicación en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa o directamente ante la jurisdicción contencioso-administrativa en la forma y plazos previstos en la Ley 29/1998, de 13 de julio, Reguladora de la Jurisdicción Contencioso-Administrativa.

*13. Protección de datos.*

En cumplimiento de la Ley Orgánica 15/1999, de 13 de diciembre, de Protección de Datos de Carácter Personal, se informa que los datos que se aportan así como los que se autorizan a obtener serán incluidos para su tratamiento en los ficheros titularidad del Ayuntamiento con la finalidad establecida en estas bases. Asimismo se informa que mediante la presentación de la solicitud de participación se autoriza al Ayuntamiento de Azpeitia para que publique en el Tablón de anuncios y en la web municipal datos relativos a la identificación de los solicitantes (DNI, nombre y apellidos) composición de la unidad convivencial, lista y cupo por el que participan y, en su caso, causa de exclusión.

*14. Normativa supletoria.*

En lo no previsto en las presentes bases, será de aplicación lo establecido en la siguiente normativa:

— Decreto 39/2008, de 4 de marzo, sobre régimen jurídico de viviendas de protección pública y medidas financieras en materia de vivienda y suelo.

— Orden de 3 de noviembre de 2010, del Consejero de Vivienda, Obras Públicas y Transportes, sobre determinación de los precios máximos de las viviendas de protección oficial.

— Orden de 14 de septiembre de 2011, del Consejero de Vivienda, Obras públicas y Transportes, de modificación de los límites de ingresos anuales ponderados exigibles para el acceso a la vivienda de protección oficial.

— Orden 15 de octubre de 2012, del Consejero de Vivienda, Obras públicas y Transportes, del registro de solicitantes devivienda y de los procedimientos para la adjudicación de Vivienda de Protección Oficial y Alojamientos dotacionales de Régimen Autonómico.

— Orden de 12 de diciembre de 2012, del Consejero de Vivienda, Obras Públicas y Transportes, por la que se corrigen errores de la Orden de 15 de octubre de 2012, del Consejero de Vivienda, Obras Públicas y Transportes, del registro de solicitantes de vivienda y de los procedimientos para la adjudicación de Viviendas de Protección Oficial y Alojamientos dotacionales de Régimen Autonómico.

— Ley 3/2015, de 18 de junio, de Vivienda. (*Boletín Oficial del País Vasco* n.º 119 de 26-06-2015).

Azpeitia, a 16 de mayo de 2018.—El alcalde, Eneko Etxeberria Bereziartua. (3778)

EK\CV GAO-I-2018-03778